

Hitzatzea

Zergatik eta zertarako euskaratu

MANU LOPEZ GASENI



Galdera zahar bezain interesgarria da *Behinolako* zenbaki hau ixteko proposatu didatena, goiburuan paratu dudana. UNESCOren arabera, munduan 6.500 hizkuntza daude gaur egun, eta, denek tradizio idatzia ez duten arren, itzulpenik gabe munduan elkarren berri izatea ezinezkoa litzateke. Itzulpenari esker zabaldu eta finkatu dira askotariko kulturak, itzulpenari esker gertatu dira era askotako mestizajeak, eta itzulpenari esker bizi gara giza artean. Hurbilen dugunaz mintzatzeko, itzulpenik gabe ez zen posible izango «mendebaleko kultura tradizioa» delakoa.

Historian barrena, testurik garrantzitsuenak hizkuntza batetik bestera aldatu dira etengabe. Horren adibiderik aipatuen eta ikertuena *Biblia* da. Hebraieratik grekerara, handik latinera, eta gero Europako eta mundu osoko hizkuntzeta-
ra itzulia. Testu erlijioso horrekin bezala, testu filosofiko, historiko eta literarioak batera eta bestera erabili dira, kulturen arteko zehar-elikatze aberasgarrian. Mundua itzulpenari esker dabilela esan daiteke.

Itzulpenen bidez, ideiak, kontzeptuak eta istorioak batetik bestera aldatu ez ezik, xede hizkuntzak aberastu ere egiten dira: halako hizkuntzak edo hizkuntza komunitateak kulturaren aurrera egingo badu, besteek sortu eta finkatutako ideia, kontzeptu eta istorio horiek beren hitz propioekin adierazteko bidea bilatzearen bitartez izango

da, ezinbestean. Euskal literaturan, kasurako, garrantzi itzela izan du Leizarragak, Duvoisinek, Orixek, Zaitegik eta gaur eguneko beste hainbeste itzultzailek euskarari egin dioten ekarpenak.

Itzulpenak garai desberdinetako sortzaileen baitan izandako garrantziaren adierazgarri bat sasi-itzulpenak izan dira. Adibide pare bat soilik, erakusteko itzulpen gisa aurkeztea liburuei bali-
o erantsia ematea dela, zenbait egileren ustez. Lehen Jean Baptiste Dasconagerre idazle lapurtarrarena: 1867an *Les Echos du pas de Roland* eleberria aurkeztu zuen, euskaratik itzuli izan balu bezala. Liburuak arrakasta handia izan zuen irakurleen artean, eta, logikoa denez, jatorrizko testua ezagutzeko jakin-mina izan zuten. Euskarazko jatorrizkorik ez zegoen, eta egileak sortu behar izan zuen frantsesezko testua euskarara





ekarriz, Julien Vinson eta Edmond Guibert-en laguntzarekin: hala sortu zen *Atheka gaitzeko oihartzunak*, 1870ean.

Bigarrena, espainiar *Kixote* bera da. Jakina denez, kontatzen den istorioa «omenkakoa» dela adierazteko, Cervantesek itzulpenaren artifizioa erabili zuen: Cide Hamete Benengeli arabiarrak idatzitako testua da Cervantesek bere eskuko iruzkinaz lagundua argitaratu zuena, itzultzaile morisko anonimo baten itzulpena medio. Aurkitutako testuaren argitaratzailearen narratzaile heterodiegetikoa baliatzen du, beraz, baina ez du nahikoa, nonbait, testua aurkitutakoa izatea; gainera, beste hizkuntza batean idatzi eta itzulia izatea ere aukeratu zuen.

Bestalde, itzulpen prozesu ororen atzean ezinbesteko katebegia dago: itzultzailea. Edozeinen esku dago egiaztatzea elebidun izateak

ez gaituela automatikoki itzultzaile bihurtzen, eta, hortaz, itzultzailea formazio sendoa eskuratutako profesionala dela. Denbora luzean zehar gutxietsia, eta itzulpen-teoria zenbaiten eraginez ikusezin bihurtua, zor zaion estimuaren zati bat jasotzen hasia da itzultzailea gaur egun. Izan ere, menperatu behar dituzten diziplinarteko trebetasun eta ezagutzengatik, gizarte eragile gutxik bezalako mundu ikuskera zabala eta iaioitasuna dute, eta areago aitortu beharko litzaieke egingadako lana.

Orain arte azaldutako guztiagatik, aski garbi dago itzulpenari bizkarra ematea, gurea bezalako zenbait kultura txikitari usteko babeskeriaren izenean egin izan den legez, erokeria dela. Gurean, konkretuki, kanpotik iristen hasi omen ziren eduki, lexiko eta joskera arrotzen beldur ibili ginen duela ez hainbeste. Gaur egun, zorionez,

horrelako iritziak gainditurik daude, nahiz eta oraindik ere itzulitako idazlanak, helduentzat izan zein haurrentzat izan, dezente gutxiago irakurtzen diren.

Aurrera begira jarrita, eta haur eta gazte literaturaren eremura mugatuz, honakoak eskatu ahal zaizkio itzulpenari, erakutsitako bide on beretik beteko dituelakoan:

Alde batetik, interes komertzialak gaindituz, jarrai dezala munduan irakurtzen diren idazlanik interesgarrienak euskaratzen, elkarren berri izateak elkar ulertzen laguntzen duelako, batez ere lan hori haur adinetik egiten bada.

Bestetik, itultzailerik trebatuenak jar ditzala zeregin horretan: sorburu eta xede hizkuntzak menperatu, literaturzaletasuna izan eta umeen mundua ezagutzen duten horiexek.

Azkenik, sentiberatasun literario berriak edo desberdinak zuzenean helaraztea, «zaratarik» gabe, irakurtzearen bidez gure haur eta gazteak ere literaturzale bihur daitezten.

